

EGAZKADAK

Etxe ganean
kee mordoia;
geldiro, baiña,
gorantza doa.

Sorgiñak begiz
egin aurrari,
ta an doakio
beingoz amari.

Errekatxoa
gutziz marmarti;
bein baten **yaku**
egin itxasti.

Aizea ausirik,
azkar egazka
dakust arrano
urdiña naika.

Gogo zindoak,
alai ta ustetsu,
egaz dagie
Zugana, Josu.

Oi, ene Maitel,
gezi bai litza,
Zugana doa
nire biotza.

OTOIA

(Lenengoz eskiñi neban Jauparen
oroiz: 1934-VII-8)

Ur zabilkidaz, Maite, adiskide zintzo,
gorputzez ur-ur, gogoz oraindik urrago;
bion maitasun lera, laba gori antzo,
diztira jarioka, garretan baitago.

Laztankor nozu deitu, ona ni Zuri so;
entzuna dot aspaldi zure aots leuna,
maitezko mintzo gozo, eztidun euria;
barnera ots eistazun, eskiñiz zoruna.

Ar lurkoia bait-naz, nitzat esker larregi;
baiña Zuk, ariz ta ariz, dei nozun ezker,
gakiozan alkarri, egundo urrintzake:
aopeko izketaldi daukagun unero.

Zutzaz maite mindua netzan illargitan,
zure jrritsez, Maiteño, ibil naz ona-ara:
aria idorotean bakar tximisteak
atsedena artzen dau bere aisiara.

Zeure jauretxeko otsein saillera ekarri
eta esku ezartzez almendun ein nozu,
orio donetsiagaz jgurtziz batera;
ta... esker-zor au, zelan neinke nik ordaindu?

Emen naukazu, goizero, ondian dardarti;
aragi begiz dakust irudia soilki,
baiña, egi uts-utsa, ortxe zagoz, Jaun on,
soiñez ta gogoz, eta zaitut ene jaki.